

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Hasierako onespena ematea Araiako 2 poligonoko 1604 lurzatiaren xehetasunezko azterlanari

Tokiko gobernu batzarraren gaurko erabaki bidez hasierako onespena eman zaio Araiako 2 poligonoko 1604 lurzatiaren eraikitze baldintzak aldatzeko xehetasunezko azterlanari. Azterlan hori A. V. Mk sustatu du I. U. A. arkitektoak idatzitako agiri teknikoan oinarrituta, eta horren helburua da gehieneko eraikitze lerroa aldatzea eta lurzatiaren mugara eramatea eraikigarritasun bolumena aldatu gabe, metro bateko espazio pribatu eraikiezineko zerrenda kenduz.

Bat etorritz ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 98.1 artikuluan jasotakoarekin, aipatutako espedientea jendaurrean jartzen da udal idazkaritzan, 20 eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aztertu ahal izateko eta egoki jotzen diren erreklamazioak eta oharrak aurkezteko.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Araia, 2018ko uztailaren 9a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ